



Xole
Erbiti
Arbilla

Lehen euskara teknikaria

(1942-2009)

BIDeGILEAK

Egilea:

Alberto Barandiaran



XOLE ERBITI ARBILLA


(1942-2009)

Urrikeniko Xole

Xole Erbiti Arbilla, jaiotzez Maria Soledad Epifania Erbiti, Illarregiko (Ultzama, Nafarroa) Urrikenia etxean jaio zen 1942ko otsailaren 3an, aita Martin Erbiti zuela, Alkozko Martixeneko etxekoa, eta ama Urbana Arbilla, Illarregikoa, Urrikenikoa bertakoa. Ez zen garai goxoa izan gerra ondokoa, ez, baina Urrikenian aurrera egin zuten, lana beltz eginda. Xoleren lehen argazkietako batean hor ageri da Karmentxu eta Olaia ahizpen ondoan, apain-apain jantzita, hirurak soineko zuriz, hiriburuko edozein etxe oneko hiru ume ondo jantzi eta ondo elikatuen antzera. Herriko eskolaren aurrean 1952an ateratako erretratuan ere, Erbititarrak pozik eta itxuraz kontent ageri dira gainerako ikaskideekin ondoan,



1948. urtea, Illarregin. Xole (6 urte), Olaia (hilabeteak) eta Karmentxu (3 urte)



Ilarregiko eskolan, Baltegia etxean, 1951. urtean. Goian, Martintxo, Pedrito, Jesus, Pablo, Maria Jesus Arangoa, Pilartxo Diez de Ultzurrun, Tomas Asensio irakaslea, Xole haren ondoan, eta Pilartxo Ilarregui, besteak beste. Behean, Etxeberriko Inaxio, Sansoloneko Isidro, Arozeneko Santiago, Suarbeko Jose Angel, Etxeberriko Fani, Urrikeneko Olaia, Sansoloneko Estrella, Suarbeko Pilar, Urrikeneko Karmentxu, Suarbeko Milagros

tartean Illarregi inguruko baserrietako seme-alabak. Urrikeniko alaben zapata txukunak eta ile motots ondo orraztuak ez dira ikaskideenak.

Argazkia polita da, eta azterketa soziologiko txiki bat egin daiteke janzteko modua edo argazki makinaren aurrean

ume bakoitzak daukan jarrera irakurtzen asmatuz gero. Aspaldiko eskola txikitako erretratu guztiekin gertatzen da. Illarregiko eta Suarbeko neska-mutilak dira erretratu horretan ageri direnak. Erdian, Tomas Asensio, gerra ondoko miseria gorritik ihesi, etxea eta egurra dohain edukitzeko eskaintzak erakarrita,

Teruel aldetik Illarregira iritsitako maisua. Erdara herrira hark ekarri zuela dio Olaiak, baina euskaraz inoiz ikasi ez bazuen ere, hala ere hizkuntzarekiko errespetuz jokatu zuela dio Xoleren ahizpa gazteenak. Gorrotorik ez, behintzat.

Illarregin, kalekoak eta baserritarrak nahasita joaten ziren herriko eskola txikira, baina baserrietakoak neguan bakarrik jaisten ziren herriraino. Udan beti zegoen lana baserrietan. Eskolara joaten zirenean kantinplora batean eramaten zuten eguerdiko mokadua, eta Xoleren etxea eskola parean egonda, han berotzen zuten anoa. Hotz handia egiten zuenean, Urrikenia jolas toki bilakatzen zen denentzat. Herriko etxea, ia.

Xole Erbitik ondo gogoan gorde zuen Illarregiko haurtzaroa. Herriko aldizkarian handik urte askotara egin zioten elkarrizketa batean aitortu zuen aitarendik jasotzen zutela, maiz, munduaren berri, harat-honat aritzen baitzen hura, tratulari. Ama berriz, etxean beti. «Txikitik oroitzen naiz etortzen zirela Frantziako gizon batzuk, euskaraz mintzatzen zirenak» zioen Xolek, haurtzaroaz galdetu ziotenean. «Orduan nik ez neukan jendeak zeukan eskema hori, euskaldungoaren eskema. Nik neukan euskaldunak

bazirela mugaz bertzaldean eta hemen, hori txiki txikitatik ikasita». Gorroto eta maitasun linguistikoaz ere zerbait ikasiz zuen ordurako. «Aita eskolara joaten zenean, Alkotzen, maistruak banatzen zien makila euskaraz mintzatzen zena jotzeko, eta gero joaten ziren kristau ikasbidea ikastera, eta apaizak ez zien uzten erdaraz egiten. Horrelako gauzak kontatzen zizkigun».

LATXAGAREN TESTIGANTZA

Tratuan beti, Martin. Iparraldekoekin, Iruñeraino Valentziatik ganadua eroatera etortzen zirenekin, nornahirekin. Probetxuzko ekonomia zen hura gerra ondoan, eta Martin ona zen antza. Inguruko etxalderik handiena eta ahaltsuena bilakatu zen Urrikenia.

Jose Maria San Sebastian *Latxaga* apaiz eta idazle gipuzkoarrak oinez zeharkatu zuen behin Nafarroa osoa, herri txiki-etako jendearen berri txikiak jaso, giza paisaia hurbil eta jada galduaren kontaduria eramanez, eta entzundakoa eta ikusitakoa *Jaka'ra Oñez Naparroan Zear* izenburuko lan interesgarrian bildu zuen. 1976an argitaratutako liburu horretan

1958. urteko martxoa. Xole eta Celia Imizcoz laguna, euskal arropak jantzita



pasarte luze bat utzi zuen idatzita Urrikenikoei buruz.

Latxagak *Príncipe de Viana* aldizkariaren euskarazko gehigarrian idazten zuen orduan, eta Xole Erbiti jada hasia zen Diputazioan euskararen aldeko sailean lanean. Elkar ezagutzen zuten. Bada, Latxaga Illarregira iritsi eta han aurkitu zuen emakume bat akuilua eskuan, behiak edanarazten. «Arratsalde on etxeoandre. Urrikenia etxea hemen al dago?». «Horixe da, ni hor bizi naiz», erantzun zion andreak.

«Urrikenia etxea oso ederra da, egitazko jauregia» idatzi zuen Latxagak. «Etxe aurrean bi ate arrizko arku borobillakin, lenengo bizitzan bost leyo ageri ta oraindik bigarreanean beste lau. Bean sarrera zabala, txukun ta apaiña, gela aundi baten antzera eskubi egurrezko malladiak. Atzean ikulluak. Goien sala aundi ta jangela, baita sukalde ederra. Sukaldean beko sua gorde dute bere burni zarrarekin; “kertokie” izena du. Ondoan dauzkate labe berrienetakoak. Maya berriz altxa ta orman lotuta gelditzen dena, “izellu” izeneko alkiakin. Sala, etxe-ko mutur batetik besteraino dijoa ta erdian aritzako mai luzea, bazterretan

kuprezko paziak ta gazta egiteko tresna zarrak; bi zimitzek, kartola ta malatxa. Etxe ontakoak ez dira nornai».

Latxagak zehatz zehaztu zituen etxeakoak, eta baita haien ondasunak ere.

«Etxekoandrea Urbana da, Urrikeni'ko alaba dugu. Senarra Martin, Ultzama'ko Alkoz'tik etorria. Iru alaba dituzte; Bakartxo, Karmen eta gazteena Olaya. Bakartxo Diputazioan lanean, bigarrena etxean orain gutxi ezkondu berria ta gazteena andereño Iruña'ko ikastolan. Gainera Urbana'n beste bi aizpa bizi dira ta betiko

morroia; errian bertan beste zazpi base-ri dituzte bereak. Euskaraz esaten dan bezala oso aberatsak dira. Etxean beiak eukitzen dituzte ta larrian artaldea lareun ardikin».

Urbanak ohitura omen zuen etxera etor-tzen ziren guztiak etxe aurreko muino batera igoarazi eta han goitik ondasunez pixka bat harrotzeko: «Hemen ingur-uan ikusten dituzun mendi eta zelaiak gureak dira». Latxagak idatzi zuen emaku-mea langile porrokatua zela, eta senarra tratuan ibiltzen zela beti, ferria batetik bestera.



1958ko martxoan, Iruñean ikasle, ikaskideekin. Beheko lerroan ezkerretik lehena da Xole

«Martin nagusia, ez da nolanaiko gizona. Sukaldean berak bakarrik egiten du izketan, eta besteak entzuten, baita Urbanak ere ixil ixilik. Hala dio Martinek “Hemengo etxe ori ta ango lurrak nik erosi ditut. Beiak emen erosi ta an saltzen ibilia naiz. Azparne’n garai batean 300 urde euki nitun”. Urbanak etzuen itzik egiten».

Baina are interesgarriagoa da Latxagak Xoleri buruz idatzi zuena. Xole Bakartxo da apaizarentzat, izenarekin halako duplizitatea izan baitzuen beti Urrikeniko alaba nagusiak: Xole etxean, Bakartxo edo Bakarne kanpoan, Maria Soledad karne-tean. Garai hartan, esan bezala, Xole Diputazioan zegoen lanean, sortu berria zen euskara sailean. «Euskararen alde lana egitea izan da beti nere asmoa» esan zion Xolek Latxagari. «Ikastetxean nenbillela danak ba dakite nolako grina agertzen nuen gure izkuntzaren alde. Ultzama’n nola galtzen ari zen ikusten nula miña ematen zidan. Orain pozik nago». «Neska sendoa ta gogorra dugu» dio Latxagak, «biotz onekoa Naparroa’ko ikastolei laguntzen dabil jo ta ke, eten gabe».

Euskararen aldekoak ziren etxe horretan, zalantzarik ez. Horrela azaldu du Olaia Erbitik, Xoleren ahizpak. «Gu beti euskaraz aritzen ginen gure artean. Eta izebekin ere,



Xole, Karmentxu ahizparekin, Tolosan, inauterietan. 1963. urtea

euskaraz. Izeba Barbara bazkariatz eta garbitasunaz arduratzen zen, erosketak egiten zituen, eta bost eta erdietan altxatzen zen beti, gosaria prestatzeko jendeari. Izeba Martina, berriz, ardiekin ibiltzen zen».

Etxalde aberatsa zen Urrikenia, beraz, baina denek gogor egiten zuten beharra.

«Gu han aritzen ginen beti lanean» go-goan du Olaiak. «Jezteko makinak ekarri zituztenean, ba jezten, eta traktoreekin lan egin behar bazen, traktoreekin, dena. Ikasi dugu denetatik. Eta aitak erregalatzen zigun dena, bai. 18 urterekin, kotxea. Baina berak nahi zuen gu onenak izatea, eta nota hoberenak ekarri behar genituen beti».

Hiru alaba etxean. Karmentxu bertan geratuko zen, herrian, eta Olaia euskarazko klaseak emango zituen handik urte batzuetara Iruñeko hainbat eskolatan. Eta nola iritsi zen ahizpa nagusia Nafarroako Diputazioko lehen euskara teknikaria izatera?

Gurasoek hamaika urterekin Iruñera bidali zuten Xole, han ikasketekin jarraitzeko. Alabentzat onena nahi zuen Martinek, eta, garai hartan, Iruñera barneko ikasle gisa joatea zen ikasketekin jarraitu nahi eta ahal zuten herriko gazteentzako aukera bakarra. Xole, beraz, hamaika urterekin Illarregi utzi eta Iruñeko Orreaga kaleko Maria Inmaculada mojen ikasketxean sartu zen. Han zazpi urtez egon zen, ikasketak amaitu arte. *Pulunpe* aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean, herri zeharo euskalduna gogoratzen zuen Illarregi.

«Herrian euskaraz mintzatzen zen gehien. Batzarrak egiten ziren euskaraz, eta haserretzen ginen euskaraz. Hori oso inportantea da. Jakin behar da jostatzen euskaraz eta haserretzen euskaraz. Hori da zaila. Bi gauza horiek egin behar dira salbatu nahi badugu hizkuntza. Eta erre-zatu ere euskaraz. Orain ez naiz gaztea, ez dakit nola mintzatzen diren gazteak».

Etxean natural jasotako hizkuntzarekiko kontzientzia Iruñean, Julia Fernandez Zabaleta irakasle nazionalistarekin hartu zuela aitortu zuen Xole Erbitik elkarrizketa hartan. Fernandez Zabaleta Iruñeko San Frantzisko eskolako maistra izan zen 36ko gerra aurretik. Maria Montessori pedagogoa italiarraren jarraitzailea izaki, ezagutu zutenek diote maistra aparta izan zela, aurrerazalea. Bere metodoa aktiboa omen zen: ateraldiak eginez haurrekin, fenomenoenguruko burutazioak bultzatuz, gauzen ezagutza ukimenaren bidez sustatuz, jolasen eta abestien aukerak aprobetxatuz. Euskararen Adiskideak elkarteak 1931n sortu zuen Euskal Eskolako irakaslea izan zen, baina 1936an, gerra piztarekin batera, kargutik kendu zuten. Xole Erbitik ezagutu zuenean, artean zigortuta zegoen, eta klaseak etxean ematen zituen. «Oso euskaltzalea zen, eta hark animatzen ninduen euskaraz egitera».

IRUÑEAN EUSKALTZALE

18 urterekin, maisu-maistra ikasketak hasi eta 1961ean, 19 urte zituela, Lehen Hezkuntzako Maistra titulua eskuratu zuen Zaragozako Irakasle Eskolan. Urte hartan bertan hasi zen Berueteko eskolan lanean, irakasle, baina hurrengo urtean Ogasun departamenturako oposizioak prestatzeari ekin, eta plaza atera zuen. Non eta Kanarietan ordea. Urrunegi Xole Erbitirentzat, Iruñeko euskal giroarekin zale-tzen hasia zen emakumearentzat, eta uko egin zion lanpostuari. 1964an, Banco de Vizcayan sartu, eta Gazteluko Plazako bulegoan lanean hasi zen. Han eman zituen bederatzia urte. Goizeko zortzietan sartzen zen lanera, eta ordu bietan atera. Arratsal-



Berueten irakasle aritu zen garaiko argazkia

deak ikasten ematen zituen. 1973an, Zuzenbideko lizentziatura lortu zuen.

Baina garai berezia zen. Xole Erbiti mendizalea zen, eta mendizaletasuna zen, Iruñean ez ezik Euskal Herri osoan, euskaltasunaren eta abertzaletasunaren habietako bat. Garai hartan ikastolak martxan hasiak ziren Iruñean eta Nafarroa osoan, eta Arturo Campion euskaltegiak ateak zabaldu zituen euskarazko klaseak emateko. Giro horretan murgilduta zeuden Xole, eta Olaia ahizpa. Olaia izan zen Iruñeko Paz de Ziganda ikastolako lehen irakasleletarik bat, eta Barañaingo ikastetxean euskarazko eskolak eman zituen.

1972ko abenduaren 15ean, Nafarroako Gobernuak plaza baterako deialdi publikoa egin zuen, sortu berria zuen Euskara saileko teknikari aritzeko Hezkuntza Zerbitzuaren barruan. Xole Erbitik irabazi zuen oposizioa, eta 1973ko martxoaren 9an Nafarroako lehen euskara teknikari bilakatu zen, 115.500 pezetako soldatarekin urtean, gehi aparteko lau ordainsari, bosturteko ordainsariak, familia laguntzak, «eta Diputazio honetako funtzionarioentzako ezarrita dauden gainerako eskubideekin». Lanposturako deialdiak zehazten zuen lana goizez egitekoa zela, bost orduz, goizeko bederatzietatik ordu



Madriren, oposizioak ateratzera joan zeneko argazkia

biak arte, baina arratsaldean ere lan egin beharko litzatekeela, «Diputazio honetako funtzionarioentzako ezarrita dauden ordainsari eta baldintzen arabera». 1982an, Nafarroako Gobernu sortu berriaren lehen Hezkuntza, Kultura eta Kirol kontseilariak sinatutako agiriak dio funtzionario plaza 1973ko apirilaren 16an esleitu bazioten ere, Xole Erbiti 1972ko ekainaren 28tik aritua zela Diputazioarentzat lanean. Ia urtebete lehenago, alegia.



Xole, 1964. urtean. Urte hartan Ogasun Ministerioaren oposizioak prestatu, eta gainditu zituen



Nafarroako lehen euskara teknikaria

Mendigoizalea zen, eta mendi taldeetan Iruñeko euskaltzaleekin harremanetan jarri zen. Argazkian, Aralarren, 1969an

Nola eta zer dela eta sortu zuen Nafarroako Gobernuak Euskara Saila, Hezkuntza Zerbitzuaren barruan? Berez, Nafarroako Diputazioa beste inongo euskal erakunde baino lehenago arduratu zen, frankismoan, euskarari gutxieneko berme instituzionala emateaz, 1956ko azaroaren 28an, Vianako Printzea erakundearen bitartez, Euskara Bermatzeko saila sortu baitzuen. Euskaraz eta erdaraz argitaratutako aldizkari ofizialean, Nafarroako Diputazioak adierazi zuen «nahigabe saminarekin» ikusten ari zela nola «hizkuntza guztietan ederren eta harrigarrien den euskera», Nafarroako euskal herrietan galtzen ari zela.

Galtze negargarri au gertatu ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei, jarraitzeko euskeraz itzegiten, beren umetxoei erakusten eta egiñalakegin ditzaten euskera zabaltzen. Euskeraren ikasbide bizkortze eta iraupenerako lan egingo duen sail berri bat (una Sección nueva) Institución Príncipe de Viana'n badu Diputacioak. Sail ontan lan egiten dutenak pozik lagun egingo die euskaldun guziei euskeraren sendotzen eta iraupenerako lanetan. Denbora gutxian, Nafarroako euskal erri guziak ikustatuko ditugu, baita ere euskeraz itz egiten dakiten ume guziei sari edo premio ederra eman ere beti euskera maite izan dezaten eta sekulan izkuntza eder ori galdu ez dezaten. Euskeraren alde Diputacioak jarri duen sail berri ontan lan egiten dutenak, abenduaren leñabiziko amabost egunetako jai egunetan Irañetatik asi eta Urdiain bitarteko erri guzitako umetxoak esamiñatuko dituzte, eta euskeraz itz egiten duten umetxo guziei sari ederra eman ere.



Diputazioan, lehen euskara teknikaria izendatu zuteneko argazkia

Sail horren ardurapean, herriz herri azterketak egiten hasi ziren, bertsolari txapelketak antolatu ziren, eta *Principe de Viana* kultur aldizkariaren euskal orria argitaratzen hasi zen. Sail horren barruan Pedro Diez de Ulzurrunek, Jose Maria Satrustegik eta Miguel Javier Urmenetak egindako lanaren ondorioz, 1967ko urtarilaren 25ean Diputazioak onartu zuen Nafarroako Lehen Hezkuntza zentroetan, eta bereziki eremu euskalduneko ikastetxeetan, egunero ordu erdiko euskarazko klaseak ematea. Hori bai, klaseko ordutegitik kanpo eta nahi zuten ikasleei soilik. Ultzama, Elizondo, Doneztebe, Leitza, Lekunberri, Irurtzun, Etxarri-Aranatz, Altsasu, Auritz, Erroibar, Aezkoa eta Otsagabiko eskoletan hasi ziren klaseak. Halaber, Vianako Printzea erakundea diruz laguntzen hasi zitzairen garai hartan sortzen ari ziren ikastolei.

1970eko urrian, Diputazioak erabaki zuen ikastetxe elebidunak sortzea bere eskumenen artean sartzen zela eta, hurrengo urtean, Euskara saila Hezkuntza zerbitzuaren barruan sartu zuen. 1972ko abenduaren 15ean, Diputazioak lehen

GOBIERNO CIVIL DE NAVARRA
Sección 1ª

Fecha: 17 de enero de 1973
Núm.: 2
N/Ref.: 5.ª B
S/Ref.:

Asunto:

Excmo. Sr.:

Acuso recibo al escrito de la Excm. Diputación Foral de su digna presidencia, de fecha 15 de diciembre ppdo., por el que se acuerda patrocinar el desarrollo del vascuence en la zona vascofona de Navarra.

Este Gobierno Civil está seguro que la dignísima Corporación Foral de Navarra, con el prestigio de sus instituciones garantizará en todo momento el fomento del idioma vernáculo, como patrimonio cultural de Navarra de acuerdo con los fines perseguidos en el acuerdo de referencia.

Dios guarde a V.E.
EL GOBERNADOR CIVIL,

Excmo. Sr. Vicepresidente de la Excm. Diputación Foral de Navarra. PAMPLONA.-

Nafarroako Gobernu ordezkariak euskara sustatzeko sailari baimena eman zion



Nafarroako Foru Diputazioak euskara sustatzeko saila sortu zuen 1973an

euskararen legea argitaratu zuen aldizkari ofizialean, saila bultzatzen aritu zirenen eskakizunak legezko bihurtzeko, hots: Diputazioak hitz eman zuen baliabideak jarriko zituela euskara irakaskuntzan sar zedin, eta ahalegin pribatuak lagunduko zituela. Handik bi astera lan hori ondo kudeatu eta aurrera eramateko plaza atera zuen. Xole Erbitik hogeita hamalau urtez bete zuen.


Lana lortzeko baldintzetako bat zen Filosofia eta Letretan lizentziaduna izatea

edo, bestela, Irakasle ikasketak izatea. Halaber, euskara «ahoz eta idatziz» ondo menperatzea. Xole Erbitiren lehen lana irakasleentzako ikastaroak antolatzea izan zen. Sortzen ari ziren ikastolek horixe zuten arazo handienetako bat, eta eskola publikoetan euskaraz ordu batzuk emateko hizkuntza ondo menperatzen zuten irakasleak behar ziren.

EUSKAL IRAKASLEENTZAKO IKASTAROAK

Lehen ikastaro hura udan egin zen, Jon Oñatibia kazetari eta irakaslearen zuzendaritzapean. Haren ondoan, Jose Maria San Sebastian *Latxaga* egon zen. Ikastaroan landu ziren, besteak beste, euskal aditza, idazketa, abesti eta dantza bidezko irakaskuntza, euskal kultura, eta Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako azken erabakiak. Halaber, Euskal Herria ezagutzeko ibilaldi ugari antolatu ziren, «zeren asko badoaz eta berebilean ezin gelditurik eta ez dakitela gure lurrari usaia hartzen».

Deialdia egiteko ez zen denbora askorik egon, baina hala ere Euskal Herri osoko 63 lagunek eman zuten izena ikasle gisa



Xole Erbiti izendatzeko agiria, «Hezkuntza teknikari gisa», 115.000 pezetako soldata batekin



1973an antolatu ziren lehen euskara ikastaroak, Iruñean. Argazkian, Xole Erbiti, Ion Oñatibia eta Joxemiel Barandiaranekin

parte hartzeko. Gehienak, neskak: hama-bi gizon baino ez. Ikastaroa Nafarroako Irakasle Eskolan egin zen, Iruñean bertan, uztailearen 16tik abuztuaren 11ra. Parte hartu zuten irakasleen artean ziren Joxemiel Barandiaran, Manuel Lekuona, Damaso Intzakoa, Aingeru Irigarai, Andoni Labaien, Martzelino Garde, Santi Onaindia eta Jon Oñatibia bera. Ikasleek 1.160 ariketa idatzita utzi zituzten, bakoitzak hogeiren bat. Hiru inkesta ere bete behar izan zituzten, eta bertan adierazita geratu zen haien euskal zaletasuna, euskararekiko maitasuna, ikasteko gogoia eta lanarekiko kemena.

Jon Oñatibiak «Euskera Artez» izeneko ikastaroa eman zuen, hizkuntzaren metodologia praktikoa. Aditza landu zuten batez ere. Euskaltzaindiak hartutako irizpideak, alegia. Garai hartako kronikek diote horixe izan zela ikasleei gehien kostatu zitzaiena, baina, ikastaroa amaituta, emaitzak oso onak begitandu zitzaizkiela. «Ikastaro askotan egon gara» esan zuen ikasleetako batek, «baina beti aditzari buruz ezertxo ere ulertu gabe itzuli gara etxera. Orain garbi ikusten dugu». «Jolas Bidez» izeneko erakustaldian, abestiak, dantzak eta orokorrean haurrentzako hizkuntzaren metodologia landu zuten.



Hezkuntza departamentuko lankideekin bazkari batean, 1980. urtea

Manuel Lekuonarekin bertsolaritza jorratu zuten, eta Federiko Zabalarekin, Euskal Herriaren bizitza. Santi Onaindiak euskal literaturak eta euskal idazleek euskal kulturarentzat daukaten garrantzia esplicitatu zien ikasleei, eta Joxemiel Barandiaranek etnografiaren hastapenak erakutsi zizkien. Jorge Riezuko kaputxinoaren bidez euskal kantak ikasi zituzten, eta Jabier Aranbururekin, euskal aldizkariaren giroa landu zuten. Joakin Menkosekin natura haurrei nola erakutsi ikusi zuten. Euskaltzaindiaren erabakiak Aingeru Iri-

garaik azaldu zituen, eta Patxi Arrarasek, euskal dantzak. Juan Garmendiak euskal artisautzari buruz jardun zuen, eta Antonio Labaienek hebraieraren biziberritzea landu zuen. Damaso Intzakoak, euskal berpiztea Nafarroan, eta Martzelino Garde, berriz, Arturo Campioni buruz arituzen. Denera, 25 hitzaldi egon ziren.

Ateraldiak, berriz, Baztanera, Xabiererra, Leirera eta Zangozara antolatu ziren. Hantxe bertan sortu zuen Jon Oñatibiak

Naparroa'k Iraun izeneko kanta:

Naparroa'k irau du sendo eta azkarra
bere semeak dute sortzetik, bai, indarra
euskera auldu zen, bañan uxatuz nigarra
eman dio betiko arnasa ta garra
Udaberria dugu Naparru zarretan
mendi gain zabal ta ibarretan
gazteen biotzetan
Yakintzaren adarrak agertzen loretan
Etxe Handia'k gaur egunean
arturik itzalpean.

Hori guztia antolatzen eta koordinatzen
aritu zen Xole Erbiti.

Bigarren Uda Ikastaroan hurrengo urtean
egin zen, eta Jon Oñatibiaz landa, Manuel
Lekuona, Santi Onaindia, Joxemiel Ba-
randiaran, Jose Mari Larrarte, Jose Agus-
tin Orbegozo, Fermin Iraolagoitia, Jesus
Gaztañaga eta beste hainbat irakaslek
parte hartu zuten. Ikastaroen amaieran
Diputazioko Tronu Aretoan banatu zi-
ren diplomak, Xole Erbiti eta Martzelino
Garde antolatzaileak zirela. Ikastaroak
urtero errepikatu ziren, eta 1976an 80
irakaslek parte hartu zuten. 1979an, be-
rriz, 365 lagun izan ziren.

Ikastaroen antolatzaileen helburu nagusia
euskal irakasleei formazioa ematea zen,

eta Xole Erbiti herrietako ikastetxeen-
dako irakasleen kontratazioaz ere ardura-
tu zen. Euskarazko irakaskuntzaren aurre
historia horretan Nafarroan aritu zirenen
arte, Jose Maria Sanchez Carrion *Txe-
petx* hizkuntzalari ezaguna dugu. Saldia-
sen aritu zen irakasle 1976an, Xole Erbi-
tik deituta. Sortzen ari ziren ikastolekin
hitzarmenak lotzea izan zen sail berriaren
beste arduretako bat, eta Irakasle esko-
lan Euskara katedra sortu zuen Euskara
sailak. 1973ko amaieran haur hezkuntza-
ren Espainiako I. kongresuan parte hartu
zuen Xole Erbitik, Valentzian.



Jesus Pagolarekin, 1979an. Handik hiru urtera ezkondu ziren



Senar-emazteak, ezkonberritan

1975eko maiatzaren 30ean, Espainiako Gobernuak dekretu bat onartu zuen bertako hizkuntzen irakaskuntza hezkuntza sarearen barruan legezatzeko. Garbi utzirik espainola «Espainiako hizkuntza nazionala» zela, dekretuak bide ematen zuen haur irakaskuntzan euskara sartzeko, baina «esperimentu moduan», eta borondatezko irakasgai gisa. Jakina, neurri ia anekdotikoa zen, baina gutxieneko legezko babes bat eskaini zuen irakaskuntzan euskara sartzeko lanean ari zirenentzat.

Xole Erbiti ia hamar urtez aritu zen langintza horretan, eta 1983an Nafarroako Gobernuak hiru langile gehiago jarri zituen zerbitzuan: Pakita Zabaleta, Jose

Bernardo Jauregi eta Iñaki Epelde. Urte haietan guztietan bakarrik lanean aritzeagatik kexurik ez zuen inoiz izan Urrikeniko alabak.

«Suerteza izan nuen bidaltzen nindutelako toki guzietara, eta horrela ezagutu nuen Nafarroa guztia, alde batetik bertzera, eta harreman handiak izan nituen, azkeneko aldietan baino gehiago hasieran. Lan pertsonal handiena izan zen hasieran, eta niretako oso inportantea izan zen ezagutuko nituelako hantxe, lagundu zidaten aunitz euskal apezak ere, herrietan zeudenak, euskararen alde».




Carlos Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariak «Pagola Erbiti sendi berriari» Iruñeko Las Pocholas jatetxera bidali zuen telegrama, 1982ko otsailaren 3an

Horixe, Xole Erbiti ezagutu zutenek azpimarratzen dutena: harremanetarako zeukan gaitasuna. Pertsona hurbila zen. Lesakako, Etxalarko eta Otsagabiko ikas-tolak sortzen lagundu zuen, eta Nafarroa osoko maisu-maistrak ezagutzen zituen. Baita orduko egoera guztiak ere. Behin, Uhartera joan eta han zer topa eta eskola oilategi batean jarrita!

Irakasleak faltan beti hala ere. Beti irakasle bila. Euskaraz Iruñeko kaleetan norbait entzun orduko, irakasle izan nahi zuen galdetzen zion. Euskerazaintza elkarteko kideekin harreman onak izan zituen beti,



Euskara zerbitzuko ordezkari gisa aritu zen hainbat ekitalditan. Argazkian, Euskaltzaindiaren kongresu batean, Oñatin (Gipuzkoa), 1989an



1976. urtea. Celia Imizcoz laguna eta haren alaba, Urrikenean. Atzean, Martin, Xoleren aita

hain segur Jon Oñatibiaren bitartez, eta Bizkaiko Euskerazaleak elkarteak sustatuko Kili Kili haurrentzako lehiaketa antolatu zuen Nafarroan zehar, eta elkarteak argitaratutako *Lan ta Lan* liburua banatu zuen erruz. Olaiak gogoan du beti esaten zuela euskara hurrekin lantzeko, antzerkia egin behar zela, eta bertsolaritza erakutsi. Euskara horrela zabaldu behar zela uste zuen.

Baina garaiak oso aldatuta zetozen. Euskaltzaletasuna ziztu bizian iraultzen ari zen –laizismoa, ezkerrekotasuna, euskara batua, didaktika molde berriak, talde lanaren goraipamena, emakumeen rola aldarrikapena–, eta Xole Erbitiren mundu ikuskera eta pentsamoldea ez zetorren oso

Gerla ondoko haurtxoa zinen
Basaburuko hazia
Illarregiko euskal giroan
hazia eta hezia.
Ikasketekin aurrera eginez
erdal munduan nahasia
eta gerora azaldu duzu
zure barneko grazia.

Xole esanda ezaguna da
Iparretik hegora
zure izenak hamaika kontu
ekartzen ditu gogora.
Limosna eske zenbat eskale
hurbildu zaizu altzora
zure apurrak jaso ondoren
sentitzen ginen gustura.

Behin sekzio ta zerbitzu hurrena
beti pertsona berdina
izan zitekeen antzerki, bertso
olerki edo ipuina.
Askotan edo gehienetan
banatzeko zen pittina
ongi dakizu erdalzaleekin
zer den nahia eta ezina.

Gizakiaren joan-etorrian
sasoi desberdinak daude
aritu zara ilusioz bai
aritu zara suabe.
Herritik herri ibili zinen
atseden askorik gabe
zuk utzi duzun neurrira heltzeko
inbidia sanoz gaude.

Bi alabatxo eta semea
Ai, zer nolako kabia
Etxekoandre eta ama zara
gorengo kategoria.
Pozteko eta sufritzeko (e)re
eman dizute zoria
Lanean zinen idazkaria
eta etxean txoria.

Zerbitu duzu zure patria
ez dakigu zenbat urtez
esker oneko hitzak ditugu
bihotzez ta borondatez.
Gure irria eta zurea
elkarrekin uztar bitez
eta langile euskalzalea
zoriontsu izan zaitez (berriz).
Eta langile jubilatua
zoriontsu izan zaitez (berriz).

Gaixotasunak gorpildun aulkian ibiltzera
behartu zuen harik eta 2009ko azaroaren
29an hil zen arte. 67 urte zituen. 1982an
Jesus Pagolarekin ezkondu, hiru seme-
-alaba utzi zituen: Uxue, Mikel eta Lorea.



Prentsan idatzitako lanak


Galesen, hizkuntzen inguruko kongresu batean.
1996ko martxoa

Xole Erbiti, euskaraz eta gaztelaniaz gain, ondo moldatzen zen frantsesez, eta ingelesez ere ikasi zuen. Parrandazalea omen zen gaztetan, eta Arturo Campionen lanak asko estimatzen zituen, *Erraondoko danbolinjolea* bereziki. Musikan, Iokin eta Iosu bikotearen diskoak atsegin zituen. Hil zenean, ahizpa Olaiak argazki liburu bat atondu zuen, eta lehen orrian *Maiteari* kantaren hitzak jarri zituen, Xoleren kanta gogoenetako bat:

Euskaldun baratzean
jaio zinan lore,
garbi eta usaintsu
larrosa dotore.
Xoriak kanta dizu
hamaika amore,
besarkatutzen zaitu
haize epelak ere.
Zu zaitut katiguan
lotzen nauan sare.

Zu zaitut bihotzaren
erdiko atala,
jakin ezazu gogoz
maite zaitudala,
zure taupaden hotsa
nik daroadala,
eta nere bizia
zugan dagoala,
biok bat izateko
jainoak gerala.

Ez gara maite behar
geuk biok bakarrik,
egoismoai inoiz
ez emon indarririk,
ez dugu ahaztu behar
herriko negarrik,
ez ta ez-entzun egin
anaien didarririk,
gugan dugun artean
maitasun sugarrik.



Euskal hizkuntzalaritzari buruzko ikasketak egin zituen 1996an, Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letren Fakultatean. Emaitza: bikain

Idatzi ere pixka bat idatzi zuen, batez ere Nafarroako egunkarietan, eta bereziki Principe de Viana kultur erakundearen euskal gehigarrian, eta *Diario de Navarra* argitalpenean, Latxagak berak hainbat urtez kudeatutako «Nafar izkuntza» orrian. Herriko kontuak, pertsonaia ezagunak eta ez hain ezagunak, ohiturak, mendiak, baita kirola ere, horiexek bere gaiak.

Lehen artikulua, Martzelino Gardek zuzentzen zuen *Principe de Viana* argitalpenean kaleratu zuen, 1976ko abuztuaren 10an, B.

Erbiti sinadurapean, Montrealgo Olinpiarde buruz. «Atletismo alorrean, irabazle nagusia Alberto Juantorena izan da; bere deituraz, nappar jatorrizkoa ikusten diogu, Kuban bizi arren. Baiñan, Nadia Comaneci izan da aurtengo Jokuetan “erregina”. Rumaniar neskatilla orrek 15 urte ditu; bere luzera, 1,53 metrokoa; ta 40 kiloko pisua. “Dena ongi egin duela” esan leike. Denek diotenez, “errex, anitz errex irabazi du”. Egia: errextasun zaillena nabari zen aren eginkizunetan».



Hainbat egitasmo, lehiaketa eta kultur ekitaldi kudeatu zituen teknikari aritu zen urteetan. Argazkian, Juanjo Equisoain zerbitzuko zuzendariarekin eta Joxema Leitza Nafarroako Bertsozale elkarteko ordezkariarekin, Nafarroako Bertso Txapelketa iragartzeko prentsaurreko batean



2001eko Haur kantari txapelketan sariak banatzen

1983ko otsailean, berriz, Mariano Izetaren *Nigarrez sortu nintzan* liburuaren karietara, elkarrizketa izan zuen idazle baztandarrarekin. Izetak berak azaldu zion Xole Erbitiri aspaldiko asmoa zela liburu hura, eta Joxe Anjel Irigarairen bultzadarekin argitaratu zuela. «Nolakoa da, Mariano, Baztan'en, euskararen egoera?» galdetu zion Erbitik. «Badakizu ongi zenbat diren, egun, gure euskara zaarrari kontra egiten dioten etsaiak». «Baiña, zerbait egin bear!». «Bai, ori bai; beti euskararen alde egin bear dugu. Begira, orain berean, antolatu dut idatz-sariketa "Escuela Profesional", COU ta EGB'ko ikasle guzien tartean. Guztira, 283 idatz-lantxo bildu ditut, batez ere Lantegi Eskolakoak; baita alaxe, 87 lantxo EGB'koak ere. Gauza ona litzake Principe de Viana asiko ba'litz baztandar gazteen idatz-lanak argitara-

tzen, aldi berean zenbait sari ematen; garrantzizkoa bait da politika gabeko Aldizkari ori etxe guzietan sartzea».

1983ko martxoan, berriz, Manuel Lekuonari Gipuzkoako Diputazioak emandako urrezko domina zela eta egin zitzaion omenaldiaren aitzaikiarekin, Oiartzungo apaizaren merezimenduak aletu zituen artikulu batean. «Aien artean aipatu dezazkegu bere "Euskal Literatura", eta batez ere "Aozko Literatura lanak", azter-metodo berria erabilliz; oroimenezkoa, pentsamendua zulatzaile eta sintetitzailea. Etnolojia, eta antropolojia lanak sendoenetakoak dira. Historia alorrean bere lan asko eta jakingarrietakoak dira. Euskarazko lan zientifikoak. Umeendako egindako liburuak; aien artean "Txuri-Gorri" eta "Kikiriki", eta ainbeste olako politak. Ontaz gaiñera, Don Manuel'en idazlan guztiak bear dira argiratu eta ezagutu, gure kultur oiñarri dira, bearrezkoak gure kultura oinarritzeko, nortasuna ezagutzeko eta ez aaztutzeko. Munduan zear zabaldu dezatela gure bereixtasuna, guk gure aldetik bultzatu dezagun gure ikasleak aietxek irakurtzera... maixu aundi baten lana bait dugu».

Herriari buruzko kronika ugari ere idatzi zituen. 1990eko udan, esaterako, Illarre-

giz hauxe argitaratu zuen *Diario de Navarra* egunkariko euskarazko orrian. «Aurten ere, sorterrri aldera abiatu naiz udan. Arboloi berde ederren azpian murgiltzera, aurtzaroko usain goxoaz gozatzera. Garai artan, ain arruntak ikusten nituen egoerak eta gauzak bertze zabalkunde bat artzen dute oraingoan. Antxe daude etxeak, mendiak, argiz eta kolore diferentek janzten dutela une guzietan. Nekazariak izadiakin batera egiten duten pertsonak dira, bizitza ematen diotenak gure alderdiari. Omenaldi bat beharko luketena, irietakoen partetik. Gero eta guttiago gelditzen dira gure etxe eta errietan.»

Handik gutxira, Santa Ageda bezperaz Iruñean. «Noiztik asi eta ateratzen dira abesbatza auek Iruñean? Nik txikitan ez naiz oroitzen olako festa bazenik emen,



Erretiratu berria, Urrikeneko etxe aurrean, Ilarregin



Belate senidearen urtebetetze festa, Urrikenean, 2009ko urtarrila. Handik bederatzi hilabetera hil zen

bear bada aintzinako denboretan izanen zela, baina bai 60 amarkadetakoan asi zeneko artaz. Orduan, zazpi edo hamar pertsona, Iruñeko alde zarra zeharkatzen. Bai gutti zirela, baina merito izugarrikoak. Oraingoa arraz polita abesbatzak (Mutiko Alaiak, Ortzadar, ikastetxeetakoak, etab), baina behar bada denboraren eraginez edo, orduko aienak, aintzindari aiekan tzirriztatzen dute biotza. Eta ez ziren ordukoak une egokienak euskaraz abesten ateratzeko karraketan zehar».

Ultzamarrei buruz, hauxe idatzi zuen 1999ko abenduaren 16an. «Jesus Ezkurak jakin izan zuen gipuzkoar baten medios non zegoen Ernio mendi hau, eta pentsatu zuen polita izanen zela Ultzamarrek olako gurutze bat antxe jartzea, eta,

“pentsatu eta egin”. Bertze lagun batzuekin batera, egin arazi zuen gurutz eder bat, Iruñean, idazki honekin: “Ultzamako jendea Jangoikori-1999ko iraila”, eta joan ze jartzera... Arek dion bezalaxe, ez zen errexa izan lana, eta mendi tontorreraino eltzerako izerdiak atera bear izan zituen. Bainan poza ere ez da txantxetako».



Lankideek egin zioten agur ekitaldian, 2006an

Euskaltzalea zen Erbiti, eta hitz senti-tuak idatzi zituen Kontseiluak 1999an Bai Euskarari kanpaina erraldoia pres-tatu eta Sadar futbol zelaia euskaltzale-ekin bete zenean. «Eta Sadarran zebiltzen zanpantzarreko ioaldunak ez zuten sorgin gaiztoak uxatu beharrik, ez zuten sorgi-nek iges egin beharrik egun orretan... de-nak ziren politak, eta egan zebilzen isets arinen gainetan Euskalerrian zehar, futbol estadioetan zeudenekin batera. Agitz gutxik pentsatzen zuten olako bat gertatu bear zenik egun orretan. Baina alaxe izan da. Eta anitzen lanak eman du beren fruitua. Eta merezi izan du Kontseiluak egindako lanak, kanpaina onek izan duen amaiera ikusgarria izan baita benetan. XXgarren mende onen asieratik, sekulako eraso asi zen euskararentzat; garai orretan, euskal-



Bere azken sanferminak, lagun artean. 2009ko uztaila

dun hurrek ikusten zuten nola beartuak ziren bere hizkuntza uztera eta erdara-ra joatera. Orretara ahal zuten geien in-darkeria eta iraina jarriz kasu geienetan euskara baztertzeko. Ala ere, eta oztopo guztien gainetik, izan ziren pertsonak, eta erri osoak ere izkuntza gordetu zutenak eta irakatsi ondokei. Aieri esker, dugu du-guna bizirik, XXI mende onen asieran».



Ilarregiko Urrikenea etxea, Xole Erbitiren jaiotetxea, gaur egun

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkiete pertsona hauei:

- Erbiti Arbilla familiari, bereziki Olaia eta Karmentxu Erbitiri
- Fermin Erbitiri
- Eduardo Aldasorori
- Aitor Etxarteri

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2020ko urtarrilean
Ale-kopurua: 2.300 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
Inprimaketa: Centro Gráfico Ganboa, S.A.
ISBN: 978-84-457-3526-8 (Lan osoarena)
978-84-457-3530-5
L.G.: LG G 00225-2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA